

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 9,94 milioi euroko azpiegitura-obrak sustatu ditu Pirinio aldean, eta kopuru horretatik 6,35 milioi berak jarri ditu

2012an zonaldean egin zen biztanle bakoitzeko inbertsioa 405 eurokoa izan zen, Nafarroa guztiko batez bestekoa 50 eurokoa izan zenean

Martes, 04 de junio de 2013

Nafarroako Gobernua 9.939.769 euroko balioa duten [toki-azpiegituretako obrak sustatzen ari da gaur egun Pirinioetan](#), eta handik 6.351.410 (% 63,9) Gobernuak berak jartzen ditu. Kouru horretatik, 4.280.166 euro Toki Azpiegituren Planearan dauden obrei dagokie eta 2.071.244 euro Nilsa enpresa publikoak gauzatu eta finantzatu behar dituen hiru obrei, zehazki, Ezkaroze, Jaurrieta eta Espartza-Zaraitzuko hondakin-uren araztegiak.



Pérez Arregui eta Esparza kontseilaria, Pirinio aldeko zinegotziekin egindako bilkuran

Hala azaldu die gaur Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio kontseilari José Javier Esparzak Pirinio Mendialdeko 20 toki-erakundetako ordezkariak izaban egin duten bilkura batean. Kontseilariarekin batera, bertan izan da Toki Administrazio zuzendari nagusi Francisco Pérez Arregui ere.

Esparza kontseilariak adierazi du zonalde horrek Nafarroako Gobernuak aurten Toki Azpiegituren Planerako erabiliko duen kopuru guztiaren % 17,14 jasoko duela, eta gogora ekarri du 2013an portzentaje hori % 15,32koa izan zela, Foru Gobernuak Pirinioen garapenean egiten ari den lana azpimarratuz. Esparzak zifra horiek zonalde horretako biztanleekin kontrastatu ditu, Foru Komunitateko biztanleria guztiaren % 1,91 dena.

Kopuru horiek biztanle bakoitzeko inbertsiora eramaten badira, 2012an Nafarroa guztian izan zen 50,70 eurokoa batez bestekoaren aurrean, Pirinio aldean zifra hori 405 euro/biztanleko izan zen. 2013an Gobernuak, Toki

Azpiegituren Planaren bidez, batez beste 28 euro pertsonako inbertituko duela aurreikusten da, eta ratio hori lurralde horretan 258 euro/biztanleko izango da.



Bilkuran izan diren udal-ordezkariek

Esparza kontseilariak ere azaldu du, Nafarroan aitortutako premiagatik gaur egungo obrei dagokien ekarpen guztitik, 13.686.987 eurokoa dena, Pirinioei dagokien zatia 916.709 eurokoa dela, hau da, kopuru guztiaren % 6,70.

Gaur egun, ondorengo udalerrietan egiten ari dira obrak: Agoitz, Erro, Garde, Izaba, Itzagaondoa, Jaurrieta, Lizoain, Irunberri, Erronkari, Untziti, Urraulgoiti, Urraulbeiti, Urrotz, Urzainki, Luzaide eta Bidankoze.

Izabako udaletxea berritzeko obren bisita

José Javier Esparzak bisita baliatu du Izabako udaletxean burutzen ari diren obrak ikusteko. Obra horiek igogailua jarri eta solairuetara joateko eskailerak ordeztzeko dira; xede horretarako, 121.504 euro inbertituko dira, eta kopuru horretatik, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioak 97.203,77 euro jarriko ditu.